

UGT: «Horrelako paktu batek balore gutxi izango luke laster»

MADRIL

UGT sindikatuak soldata indizeen eta eskala mugikorren unibertsalitatea eta derri-gortasuna bermatuko duen lege bat eskatu zuen, Jose Maria Zufiaur sindikatuko idazkari konfederalak adierazi zuenez. Gobernuaren proposamena konpetitibitateari buruz «nahita anbigua» dela esan zuen. Konpetitibitate eredu hori errenten politikaz arduratzea izan zen bere kritika bakarra. Soldatetan adostasuna lortuko balute sindikatuek, oso zaila izan arren, ez luketela beste gauza batzuk bete gabe egingo esan zuen Zufiaurrek, hala nola, etekin enpresarialen kontrola, enplegu politika eta babes soziala. Paktuak enpresariaren etekin «birsrtzea» besterik ez duela bilatzen esan zuen. Soldaten indizeak «lege baten bidez bakarrik» egin daitezkeela erantsi zuen.

«Sozialdemokrata batek, Soltxagak aipatu duenez, esatea soldatek eragina izango dutela enpleguan, etekinetan eta babes sozialean, irensteko sabel handia behar da» esan zuen Zufiaurrek. Horrelako akordio batek balore gutxi izango lukeela uste du hilabete gutxira gatazkak sortuko lirakeelako sindikatuak eta Gobernuaren artean, Akordio Ekonomiko eta Sozialean bezala. Sindikatu sozialistarentzat beste akats bat da konpetitibitate paktua «ezinezkoa» dela Legebiltzara, alderdi politikoak, sindikatuak eta enpresariaren partaidetzarekin. Kontzertazio soziala jarraituagoa izatea eskatu zion Gobernuari eta hori ez zela posible esan zuen lanbide hezkuntzan aurrerapenik ez delako izan eta laneko segurtasuna 1971ko lege batez araututa dagoela aipatu zuen.

Martin Toval: «Felipe Gonzalez ez da ezinbestekoa proiektu sozialistan»

Aldaketak izan arren, berak «denbora askoan» jarraitu behar duela diote

Felipe Gonzalez ez da «ezinbestekoa» proiektu sozialistarentzat, aldaketa proiektu historiko bezala, Eduardo Martin Toval talde sozialistako lehendakariak esan zuenez. Hala ere, gaur egunerako «PSOEn buruzagirik handiena da eta denbora askoz jarraitu» behar duela erantsi zuen.

MADRIL

Gobernuko lehendakariak esan zuen Sevillan alderdiaren berrikuntzan aldaketa asko egon daitezkeela eta berarengan ere eragina izan dezakeela. Martin Tovalek esan zuen «oso zaila» dela alderdiaren buruzagitzan duen postutik kentzea, duen apoioagatik. Bozeramale sozialistak ziurtatu zuen, Felipe Gonzalez PSOEn idazkaritza nagusitik kentzeko maniobren berririk ez zuela. Bere etorkizuna Exekutiboaren aurrean hiritarren esku dagoela esan zuen, «ez sektore ekonomiko baten esku, nahiz eta oso garrantzitsua izan». Matilde Fernandez Gai Sozialetarako ministroak esan zuen oso zaila dela gaur egun Felipe Gonzalez PSOeko idazkaritza nagusitik kentzea.

Hasieran Martin Tovalek ez zuen komentariorik egin nahi izan Gonzalezen adierapenei buruz, baina gero esan zuen alderdiko idazkari nagusiaren planteamenduek ez dutela zerikusirik Batzorde Exekutibo sozialistaren joan den asteko bilerarekin, PSOEn finantzaketaz barne ikerketaren ondorioak eztabaidatu zituen. Gonzalezen hitzek bere eta PSOEn betiko jarrerak irekitasunaz, barne demokraziaz eta alderdiaren funtzionamendu arinaz azaldu zituztela esan zuen Martin Tovalek.

PSOEN INERTZIETARAKO JOERA «Nik uste dut PSOEn etapa berri bati buruz ari zela, alderdiaren izaera erabat demokratikoa azpimarratu behar dela»



Eduardo Martin Toval (eskuinean) De la Quadra Justizia ministroarekin. EFE

esan zuen. Horretarako pertsona batzuk dituzten ardurak utzi behar baldin badituzte, PSOE aurrerakuntza eta aldaketa tresna izaten jarraitzen duela esan zuen Martin Tovalek. «PSOE azkenaldian izandako ardurak dituen erakunde sozial batek inertziarako joera du seguraski, eta horregatik barrutik inertziak haustera bultzatu behar da eta alderdiko liderrak kezka hori izatea ona da» erantsi zuen bozeramale sozialistak.

Garai txarrak datozenik ez du uste eta azken udal hauteskundeek PSOE gizartearen gehiengoaren babesa duen alderdia dela frogatu dutela erantsi zuen. Talde parlamentario sozialistarekin izandako bileran Tomas de la Quadra Salcedo Justizia ministroak Kode Penalaren aurreproiektu berriaz informatu zuen eta alderdiaren finantzaketaz egindako barne ikerketaren txostenaz ere hitzegin zen.

35 urteko gartzela beteko dute ehienez terroristek eta narkoek

MADRIL

Terroristek eta narkotrafikanteek 35 urte pasa dezakete gartzelan, urte horiek baino zigor handiagoa suposatzen duen kondena bat baino gehiago dutenean Justizia Ministeritza prestatzen ari den Kode Penalaren arabera. Tomas del Quadra Salcedo Justizia ministroak Parlamentuko talde sozialistako diputatu eta senadorei eman zien horren berri Kongresuan izandako bileran. Orain arte 30 urte baino gehiago ezin ziren pasa gartzelan, nahiz eta zigorrak pilatzeagatik urte gehiagorako zigortua izan.

Denbora hori gutxitzeko zailtasun handiak izango dituzte terroristek eta narkotrafikanteek, hurrengo Kode Penalean ez bait dituzte zigorrak murrizteko laguntza penitentziariorik. Beste berrikuntza bat izango da sei hilabeteko gartzela baino gutxiagoko kondenak zigor ekonomiko ez ordezkatu egingo direla. Urtebete baino gutxiagoko zigorrak ez dira gaur egun betetzen, zigortuak aurrekin penalik ez badu. Iturri sozialista horiek jakin erazi zuten, De la Quadra Salcedo abortua indikazioak dituen epe lege baten bidez arautzearen aldekoa da, baina zein epe eta zein indikazio ez zuen zehaztu.

Harkien arazoarekin berriz ere topo egin du Frantziak

A.S. / BAIONA

Narbonne hiriko «Les Oliviers» auzoan joan zen ostiral eta larunbatean gertatu ziren gatazkek berriro aipagai izan dute Harki arazoak Frantziaren. Oroitaraz dezakegunez, bi egun horietan ehundaka frantses musulman gazte Aude departamenduko hiri honen karriketara jaitsi ziren bizi duten giza egoera larriaz beren haserre adiarazteko. Polizi indarrekin iskanbilak laster sortu ziren eta errana izan denez, gazte hauek koktail molotov eta harriak jaurtiki zituzten CRSen aurka. Ondorioz, hamalau

polizia zaurituak izan ziren eta lau gazte atxilotuak. Hauek, geroztik jakin denez, Carcassonneko espetxean giltzaperatuak izan dira «talde armatu batean parte hartzea» eta «suteak eragitea», besteak beste leporatu zaie.

FRANTZIAREN ESKER TXARRA Gertakari hauen jatorria Aljeriako gerraren ondorioetan bila daiteke. Izan ere, FLNren askapen borrokari aurre egiteko, frantziarrek musulman batzuk sartu zituzten frantses Armadan. Hauek Harka erregimendua osatzen zi-

tuzten eta bertan partaide ziren aljeriarrak Harki izena hartu zuten. Guztira 200.000 izan ziren Frantziaren aldeko hautu hau egin zutenak, baina gerra bukatu zelarik 68.000 batek bakarrik zuten frantses Estatura ihes egitea lortu.

Kanpamendu batzuetan aterpetuak izan ziren eta behin-behinekoa izan behar zuen egoera honek dirau gaur egun oraindik. Nahiz estatistika zehatzik ez den behin ere egina izan, pentsa daiteke Harki horiek eta beren seme-alabek 450.000 lagunetako jendetza bat osatzen dutela gaur. Aljeriako gerra bukatu zenetik, hiru



Aljeriar bat. AP
belaunaldi izan dira eta gazteek jasangaitza dute frantses gizartearen bizitako zokoratzea. Arrazismoatik bestalde, langabezia ikaragarri baten arazoak (departamendu batzuetan Harki seme-alabetarik % 90 langabe litzateke) esplikatu lezake azken egun hauetako jazarraldia.

Marchandek dioenez Moumen Diouri susmagarria da

A.S. / BAIONA

Philippe Marchand, Frantziako barne ministroak atzo goizean egindako deklarazio batean, Moumen Diouri, Frantziak Gabon herrira kanporatu duen marrokkar erre-fuxiatu politikoa «estremista talde batzuekin loturak bazituela» adierazi zuen. Irakiar, siriar, palestinar eta islamista batzuekin harremanak izatea leporatu zaio, baina Frantziako Barne arazoetako ministroak, aldiz, Moumen Diourik Marrokkoko erregearen agintez argitara emateko xedea daukan liburuak ez duela ezer ikustekorik izan kanporatze horrekin aditzera ematen zuen. Gainera, Philippe Marchanden arabera, Moumen Diouri pertsonaia susmagarria da eta bere dirubideak ez zirela batera argiak gaineratu zuen, eta azpimarratu zuen duela hiru urte hemazortzi hilabeteko presondegian igarotzea kondenatu zutela zergak behar bezala ez ordaintzeagatik. Mitterrand lehendakariak marrokkar erre-fuxiatuaren kanporatzea egokia zela esan zuen Luxembourgeko europar estatuburuaren bileraren ondotik. Frantziako lehendakariak zioenez, Diourik behin baino gehiagotan Frantziako legeak hautsi zituen eta honakoa gaineratu zuen: «mugak gainditu direnean kanporatzeko erabakia hartu da».

Kortsikan Frantziako sinboloak kaltetu zituzten

A.S. / BAIONA

Hiru atentatu izan ziren atzo goizean Kortsikan eta hauetarik batek bakarrik eragin zituen kalte materialak. Hori mugazainen itsasuntzi baten aurka zuzendu zen eta goizeko bostak t'erdian inguruan gertatutako leherketa baten ondorioz untzia erabat suntsituta geratu zen. Ordu batzuk lehenago, bi atentatu hutsean geratu ziren, bat Aiacciu eta bigarrena Cortin. Aiacciu CRS poliziategiaren aurrean, goizeko ordubatean zaindaria batek, 400 gramuko lehergailu bat aurkitu zuen. Eztaba egin ez duen lehergailu hori, iduriz, bidetik jaurtiki zuten. Goizeko ordubi t'erdietan, Corti hirian dagoen armadaren tresnategian sartu zen hamar bat kideko komando armatu bat. FLNC-koak zirela esan zuten lagun horiek armategiko giltzak eskatu zituzten zaindaria, baina horren esku ez zirela adierazi eta komandoak alde egin zuen.